

# Zaindu edo hezi?

Haurtzaindegi pribatuak eta lokalak indartzea proposatu du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak

0-3 urteko zikloendako. Praktikan, betebeharrak hezitzailea bigarren mailan utzi eta asistentziala nagusitzea

**Z**aindu edo hezi? Denbora pasatzeko edo ikasteko garaia? Haurtzaindegiak edo haur eskolak? Dikotomia honek azaltzen du, ondo baino hobeto, 0 eta 3 urte bitarteko haurren irakaskuntzari buruz oraindik gaur egun dauden uste eta aurriritziak. Giza-kiak, urtebete egin gabe ere, lengoia interpretatzeko ordenagailu bizkorren ere erabili ezin dituzten neurri abstraktuak baliatzen dituela aspaldi frogatuta badago ere, oraindik, askorendako, jolasteko garaia bakarrik da eskolara joan bitarteko hori.

Haur hezkuntzaren lehen zikloaren erregularizazioaren inguruan Nafarroan sortu den polemikaren atzean dago aipatutako eztabaida hori. *Haur hezkuntzaren lehen zikloaren erregularizaziorako baldintzak* izeneko txostenak, Nafarroako Legebiltzarren eskaerei jarraiki departamentuak egin berri duenak, onartzen du oraindik arautu gabe dagoen ziklo hau egituratu egin behar dela, baina lan hori hezkuntzako departamentuarena baino ongizate sozialaren ardura dela dio.

"Hiru urte bitarteko haurrendako eskaintza, eskola publikoaren eskaintza sistemaren beheranzko luzapena izanik ere, gehienbat familia barruko zainketaren goranzko luzapena da". Hau da, garrantzitsuago irizten dio gurasoei pisua kentzeari haurrak edukatzeari baino.

Hori dela-eta, Javier Markotegi kontseilariaren sailak prestaturiko egitasmoan nabarmen hobesten da gaur egun martxan dauden zentroak -bai pribatuak baita publikoak ere- indartzea eta sustatzea, LOGSEk eskatzen dituen baldintza guztiak beteko litzuketen ikastetxe berriak egitea baino.

Alde batetik ekonomikoki aukera hori dezente bideragarriagoa delako -7.000 milioi pezeta kostako litzateke ziklo osoa egituratzea (280 milioi libera gutxigora behera)-, baina, batez ere, "garai asistentzialaren" izaera egozten diolako eskolaratu arteko adin honi.



Bi neskatu jolasean.

EDURNE KOCH

## Argibideak

### Errealitate konplexua

**LOGSEren baldintzak:** Legeak dio haur eskolen eraikina bakarrik horretarako izango dela, haur bakoitzeko bi metro koadro izango dela, eta lotarako eta garbiketarako zonalde bereizturik izango dituztela. Komun bana izango du gela bakoitzak, eta erabilera anitzeko gela ere. Langileek titulazio berezkoa izan beharko dute.

**Hezkuntza departamentuaren proposamena:** Txostenak dio egun Nafarroako Gobernuaren menpean dauden eskolek ziurtatu beharko dutela langilego prestatuaren kontratazioa, eta arau pedagogiko gutxieneko batzuk. Udal haurtzaindegi edo zentro pribatuendako dio lagun-

du egingo direla ekonomikoki, bai heziketa irizpideetan, baita gutxienezko segurtasun eta osasun neurriak jartzen.

**Aurrekontua:** LOGSEren baldintzak betetzea, departamentuak eginiko txostenaren arabera, 7.000 milioi pezeta kostua ekarriko luke. Gizarte Ongizatek dio, ordea, 15.000 milioi-tara iritsi litekeela.

**Egoera gaur egun:** Nafarroan zazpi haur eskola daude Gizarte Ongizatearen menpe -horietatik lau Iruñean eta Iruñeko Udalak zortzi zentro gehiago ditu auzoetan. Beste bederatzia udalek ere bere haurtzaindegia dute. Horietaz gain, hamaika zentro

daude Nafarroa osoan ikastetxe pribatuek jarritakoak, bi urteko haurrendako gelen gisa, eta, azkenik, haurtzaindegi pribatuak daude, beste ikastetxeekin loturarik ez dutenak.

**Gurasoen kezka:** Txostenak zeharka aipatzen badu ere, gurasoen artean bada kezka lan baldintzek gero eta derrigorrezkoago egiten dutelako haurra txikitatik eskolara eraman beharra. Horregatik, haurtzaindegiek egun duten ordutegia -hamar ordu irekita, batz besteko- oso lagungarria da etxean biek lan egiten badute. LOGSEk, ordea, zehazten du bost ordukoa izango dela ordutegia.

#### "Haurrak zeruan daude"

Ez da berria. Aurten bertan, ikasturte ororen hasieretan Markotegik egiten dituen adierazpen horietako batean esan zuen haur hezkuntzako neska-mutilak "zeruan" zeu-

dela, eta aniztasunaren bere ikuspegia laburbildu zuen: "Denak oso zintzoak dira, jatorrak, eta ez daude euren artean desberdintasun handiak". Ziklo honek badu estrategikotasun handia ordea. Hau da arautu gabe

gelditzen den azken adin zatia -derrigorrezkoak eta ez derrigorrezkoak barne-, eta nabaria da eskaerak gorako bide geldiezina daramala. Dela lan arrazoiengatik, dela gurasoen nahiengatik, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak

eskolarizatzeko eskaerak halako bi egin du Nafarroan 1990etik hona. Gainera, aspaldian ugalduta ikastetxe pribatuetan -ikastolak barne- 2 urteko haurrendako gelak, ez toki egoki ez irakasle prestatua ez dute-